

Euskararen Kontseilu Sektoriala Ohiko Bilkura

Data eta lekua	2026ko martxoaren 9an Urumea gelan (Udaletxea, Ijentea kalea)
Hasiera eta amaiera ordua:	18:00 – 20:00

BERTARATUAK:

Talde politikoak:

LEHENDAKARITZA: Kerman Orbegozo_EAJ-PNV (Pertsonak, Ekonomia eta Aurrekontu Kudea-
keta eta Euskarako zinegotzi ordezkaria)
EAJ Miren Azkarate
EH Bildu Itziar Iturri
ELKARREKIN DONOSTIA Sabin Zubiri

Elkarteak, Hiritarrak eta Gizarte-ospe bereziko pertsona edo kolektiboak:

BAGERA ELKARTEA
BATZEN
BIZARRAIN
San Sebastián SHOPS
LABORAL KUTXA
KUTXABANK
IRUTXULOKO HITZA
GIPUZKOAKO OSTALARITZA ELKARTEA
AEK

Euskara Zerbitzuko langileak:

Edurne Otamendi (Euskara Zerbitzuaren burua)
Alex Aisa (Euskara Zerbitzuko Hirirako Hizkuntza Normalizaziorako Atalburua)
Aines Murillo (Euskara Zerbitzuko Teknikaria)_Idazkaria

EZ DIRA BERTARATU:

IPSEko ordezkaria (ezin etorria adierazi du)
HEZTENeko ordezkaria (ezin etorria adierazi du)
PPko ordezkaria

1. Lehendakariaren aurkezpena

Lehendakari berriak agurra eta etortzeagatik esker ona luzatu die Euskararen Kontseilu Sektorialaren bilkurara etorri diren kideei. Bere burua aurkeztu du Kontseilu Sektorialeko lehendakari gisa, alkate berria izendatu zenetik hizkuntza normalizazioaren gaia eta Euskara Zerbitzuaren ardura bere esku daudela adieraziz.

Euskararen Kontseilu Sektorialaren lehendakari gisa lehen saioa denez, kide guztiei aurkezpen-erronda egitea eskatu die.

Jarraian gai-zerrendarekin hasi da.

2. 2025eko urriaren 21eko bileraren akta onartzea

Aurreko bileraren akta aho batez onartu da.

3. Euskararen Kontseilu Sektorialaren 2026ko bileren egutegiaren eta aztergaien proposamena

Euskara Zerbitzuko buruak argitu du kontseilu sektorialeko kideei idatziz bidali zaiela 2026ko bileren egutegiaren eta aztergaien proposamena, eta aurreikuspen bat dela.

Bertaratutako guztien artean kontseiluaren hurrengo bi bileren datak adostu dira: ekainaren 17a eta azaroaren 18a.

4. Donostian Euskara Sustatzeko Plan Estrategikoaren (D-AROA) aurkezpena

Lehendakariak gai-zerrendaren 4. puntuari sarrera bat egin dio eta azaldu du Euskara Zerbitzua datozen urteetarako Donostian hizkuntza politikan gidari izango den plana egiteko prozesua bideratzen aritu dela 2024 eta 2025ean zehar.

2024ko udazkenean, Euskara Zerbitzuak aurreko planaren (Euskararen Plan Orokorra 2020-2024) ebaluazioa egin zuen eta Siadecori *Donostiako datu demolinguistikoen bilakaeraren prospekzio-iker-keta lana* eskatu zion, 2036 urte arteko epe muga duena. 2025en hiriko eragile desberdinekin hausnarketa prozesu bat zabaldu zuen eta, ondoren, diseinu faseari ekin zitzaion. Eginkizun hauetan Elhuyar Aholkularitza izan du bidelagun Euskara Zerbitzuak.

Prozesu honetan Euskararen Kontseilu Sektorialeko kideek ere parte hartu dute eta gaur aurkeztuko da emaitza.

Ondoren, Euskara Zerbitzuko buruak hartu du hitza.

Donostian Euskara Sustatzeko Plan Estrategikoaren planari buruzko dokumentazioa kideei aurreratu zitzaenez deialdiarekin batera, Euskara Zerbitzuko buruak planaren egitura, ildo nagusiak eta ezau-garriak azaldu ditu xehetasunetan sartu gabe. Halaber, esan du hiriko hizkuntza-politikaren plan gidaria izango dela 2036 urtera arte, helburu izanik euskara indarberritzea eta herritarrak aktibatzea.

Plan estrategiko honek Eusko Jaurlaritzak onartutako AROA marko estrategikoan dauka abiapuntua. Berrikuntza, kudeaketa aurreratua eta metodologia-malgutasuna oinarri izanik, zazpi ardatz estrategikoren gainean lan egitea proposatzen du: gobernantza, jarrera/motibazioa, ezagutza/gaitasuna, erabilera/elkarreragina, berrikuntza, ikerketa/sistematizazioa eta komunikazioa/hedapena. Planaren egiturari dagokionez, zazpi ardatz estrategiko horietatik abiatuta, ardatz bakoitzeko erronkak, lan-ildoak, ekimenak eta ekintzak jasotzen ditu.

Hamar urterako markoan oinarritutako plan bizia eta malgua izango da. Urtez-urteko jarraipena izango duen arren, bost urte barru prozesuari buruzko hausnarketa eta egoeraren azterketa egingo da datozen bost urteetarako erronka berriak identifikatu eta planari behar diren egokitzapenak egiteko.

Plan honen lan-ildoetako bat da eremu soziolinguistikoaren arabera hizkuntza politikak garatzea. Hau da, berariazko esku-hartzeak egitea eremu geografiko edo funtzionalen egoera eta ezaugarri soziolinguistikoen arabera.

Gauzak horrela, Donostian Euskara Sustatzeko Plan Estrategiko hau diseinatzerakoan, berariazko lanketa egin da Ekialdeko Barrutian. Lanketa honen helburua ez da izan bi Plan Estrategiko egitea, baizik eta Donostia osorako egin dena Ekialdeko Barrutira lurreratzea.

Horrez gain, badira beste bi eremu geografiko Donostian berariazko lanketa behar dutela identifikatuta: bata, Igeldo eta, bestea, Añorga.

Lehenengoaren kasuan, Tokiko Entitate Txiki izendatu berri da. Estatus horrek eskumen propioak izateko ahalmena ematen dionez, hizkuntza politika da bere egin duen eskumenetako bat. Donostiako Planak eta Igeldokoak aurrera egin ahala, zubiak eta elkarlanak nola eraiki aztertzen joatea biderik eraginkorrena izango da.

Añorgaren kasuan, berriz, Gipuzkoa Arigune proiektu pilotuaren barnean Añorga Arigune proiektu pilotua ari da garatzen Udaleko Euskara Zerbitzua añorgatar norbanakoekin eta entitateetako ordezkariekin, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, Taupa euskara elkarten federazioarekin eta Bagera Euskaltzaleen Elkartarekin. Proiektu honen baitan berariazko erronka eta lan-ildoak identifikatu dira eta horiei erantzuteko ekintzak bideratzen ari da lantalde hau eta, bereziki, añorgatarrak. Donostian Euskara Sustatzeko Plan Estrategiko honen ekintza planean jasota dago proiektu pilotu hau garatzen joateko aurreikuspena.

5. 2026ko kudeaketa planaren aurkezpena

Euskara Zerbitzuko Hirirako Normalizaziorako atalburuak 2026ko kudeaketa plana eta dagokion aurrekontua azaldu dizkie bertaratutako kideei. Deialdiarekin batera kontseiluko kideei bidali zitzaenez, aurreko puntuan azaldutako ildo horiek kontutan edukita, ekintza batzuk nabarmendu ditu, hau da, batez ere indarra eta fokua non jarri den azpimarratu nahi izan du.

Helburua da, plan honetan hamar urteko ikuspegiarekin jasotzen direnak betetzen joateko urtez-urteko ekintza planetan baliabideak eta aurrekontu beharrak doitzen joatea eta aurrera-urratsak egitea.

Azpimarratu du erakunde publikoek edota euskalgintzak egingo duten jardunarekin batera, beharrezkoa dela gizartearen esparru guztietatik eraldatzea euskararen indarberritzea. Hizkuntza normalizazioan aurrera egiteko biderik eraginkorrena elkarlana dela erakutsi digula esperientziak eta, aurrera begira, gobernantza eredu berriak jorratzea eta ikertzea dagokigu erakunde publikoek, gizarte eragileek eta herritarrek eskutik bidea eginaz.

Zentzu horretan, Euskararen Zerbitzuaren buruak azpimarratu du orain arte Donostia Kirolak-ekin eta Donostia Kulturarekin egindako lanketa eta elkarlana estua izan dela, baina batez ere, aurrera begira, Donostia Kirolarekin indartu nahi dela lankidetzari hori eta hobekuntza bideak non aurkitu ditzaketen aztertu.

Kultur Aniztasuna eta hizkuntza aniztasuna erdigunean jartzea beste lehentasunetako bat dela azpimarratu du.

Ildo beretik, Euskara Zerbitzuko Hirirako Hizkuntza Normalizaziorako Atalburuak esan du Bagera Donostiako Euskaltzaleen Elkartea eta auzoetako eragileak bidegile eta bidelagun izan direla aurreko Euskararen Plan Orokorra aurrera eramateko garaian eta elkarlan horrekin jarraituko dela. Bagera Donostiako Euskaltzaleen Elkartarekin 2 urteko hitzarmena sinatu da Aktibazio Azoka eta Bidean Eragin ekimen berritzaileak aurrera eramateko 2026an eta Euskaraldia 2027an.

Era berean, beste ekintza batzuk azpimarratu ditu, hala nola udazkenerako ezagutzera emango den "Euskaraz barra/barra" kanpaina.

6. Norberak lekarkeena

ELKARREKINeko ordezkariak mahai-gaineratu du zoriontzeko plana dela, metodologia interesgarria eta aberasgarria duena. Baina adierazi du Plana egiteko hausnarketa prozesuan eta diseinu fasean berak proposatu zuela udal euskaltegi bat zabaltzeko aukera aztertzea eta hori ez dela planean txertatu.

Euskara Zerbitzuaren buruak azaldu dio Donostian 9 Euskaltegi homologatu eta euskara irakasteko 2 zentro homologatu daudela eta ez duela uste udal euskaltegi baten beharra dagoenik. Udalean baloratu dela proposamena eta, oraingoz behintzat, planean ez txertatzea erabaki dela.

BATZENeko ordezkariak hausnarketa orokor bat egin du azpimarratuz euskara ez dela ikasten erakargarria delako, baizik eta haren beharra dagoelako. Arazo estruktural batzuk daudela. Horien artean, besteak beste, euskararen kontra eta erdalduntzera gidatzen dutenak aipatu ditu, eta horiek ez ditugula neutralizatzen adierazi du.

Bestalde, erreferenteen garrantzia azpimarratu du eta kirolaren adibidea jarri du. Mutilek neskek baino gaztelania gehiago erabiltzen dute eta horretan kirol erreferenteek eragina dute. Kirolak erreferenteak direla, eta horien artean, nagusia futbola dela. Realeko futbol jokalariek gaztelania erabiltzen dute gehienetan eta ETB2n ere gaztelaniaz jartzen dituzte edo euskaraz egiten den edozer itzuli egin behar zaie erdaldunek ulertu behar dutelako. Eta hau dena normaltasunez ikusten dugu.

Halaber, ulermena lantzeko ahalegin horri dagokionez, BATZENeko ordezkariak adierazi du astero kirol-ikastaroetara joaten direnentzat (spining, pilates, eta abar) hauek izan daitezkeela euskara ikasteko eta ulertzeko saioak. Horretarako beharko da kirol ikastaro horien irakasleak euskaldunak izatea.

Euskara Zerbitzuaren buruak erantzun dio Realak ondo landuta duela gai hori eta hizkuntzaren erabilera egokirako irizpideak jarrita dituela aspalditik: prentsurrekoetan, jokalarien agerraldi publikoetan eta abar. Eta ETBk ere badu, eta sistematikoki egiten ez badute ere, horren jakitun dira.

EH-BILDUKo ordezkariak galdetu du ea zergatik ez dagoen esku hartzeko planteamendurik hemengo erdaldunekin.

Euskara Zerbitzuko arduradunak erantzun du, hala dela, badaudela bertakoak diren erdaldunak ere, noski: horietako batzuk ikasteko saiakera egin dute eta ez dute lortu, edo denbora gutxi izan dute, eta abar... baina beren seme-alabak D eredura bidali dituzte euskalduntzera. Aldiz badago beste talde bat ez duena euskara berarena sentitzen. Guraso horiek A eredura bidaltzen dituzte beren haurrak eta hori argi ikusten da matrikulazio datuetan: azken 20 urteetan Donostian A ereduaren matrikulatzen diren 2 eta 3 urte bitarteko haurrak % 8-10 dira. Eta datu hori ez da mugitu.

Euskara Zerbitzuaren buruak azaldu du SIADECOren prospekzioan oinarrituta, indarrak jarri nahi izan direla migrazio mugimenduek ekarriko dituzten biztanle berriengan, euskararekin irabazteko asko dutelako. Baina, aldi berean, esan du ez dela pisu guztia etorkinen gain jarri nahi eta hemengo erdaldunekin berriazko esku-hartzeak egitea baloratu beharko litzatekeela. Aurrera begira, hala ere, alde horretatik diskurtsoa landu beharra dagoela, ez Donostian bakarrik, hizkuntz politika orokorrean eta horretan bertako erdaldunak duen garrantzia balioan jarri beharko litzateke.

Besterik ezean, bukatutzat eman du bilera lehendakariak 20:00etan..